

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernua eta ONCE elkarlanean arituko dira braille sistemaren bidez botoa eman ahal izateko aukera hedatzeko

Foru Gobernuak informatzeko doako telefono zenbakia jarriko du martxan: 900 103 124

Jueves, 31 de marzo de 2011

Gobernuko lehen presidenteordea eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak, Javier Caballero, eta Nafarroako ONCEko ordezkariak, Matilde Gómezek, hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean Nafarroako Jauregian ikusmen urrituek Braille sistema bidez botoa eman ahal izan dezaten, baita aukera hori ezagutzera emateko ere. Hala, nahi duen orok hala bozkatu ahal izango du Nafarroako Parlamenturako datozen hauteskundeetan. Aukera horrek segurtasuna, irisgarritasuna, konfidentzaltasuna eta fidagarritasuna bermatuko ditu.



Caballero presidenteordea eta ONCEko ordezkaria, Matilde Gómez, botoa braille sistema bidez emateko hitzarmena sinatu ondoren

Lankidetza hitzarmen hori dela eta, Gobernuak 900 103 124 doako telefonoa jarriko du martxan braille sistemaren bidez bozkatzeko aukeraren inguruko informazioa emateko. Gainera, Hauteskunde Batzordearen bitartez, informazioa eta telefono zenbakia hedabideei emango dizkie eta www.navarra.es webgunean argitaratuko dituzte.

Bestalde, ONCEk konpromisoa hartu du bere bazkideei botoa eman ahal izateko baldintzak jakinarazteko: nola eska dezaketen, zertan datzan eta informatzeko 900 103 124 telefonoa jarri dutela eta telefono horren erabilera zein den.

Braille sistemaren bidez botoa eman ahal izatea

Ikusmen urrituei bozkatzeko eskubidea baliatzeko aukera ematen dien boto prozedura da. Prozedura hori Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan bakarrik erabili ahal izango da eta irakurtzeko eta idazteko braille sistema ezagutzen duten eta ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasuna duten edo Espainiako Itsuen Erakundeko kideak diren ikusmen urritu guztiek eska dezakete.

Aipatu diren baldintzak betetzen dituzten eta bozkatzeko sistema

hori erabili nahi duten hautesleek hauteskundearen deialdia egiten denetik zenbatzen hasita 27 eguneko epean jakinarazi beharko dute hala bozkatu nahi dutela Nafarroako Gobernuak Hauteskunde Bulegoan 900 103124 telefonora deituz; telefono zenbaki horretara deitzean izen-abizenak, bizitokia, NAN eta harremanetarako telefonoa eman beharko dituzte.

Sistemak honela funtzionatzen du: boto txartel normalizatuak eta braille sisteman dauden agiri espezifikoak erabiltzen dira. Horren bidez, ikusmen urrituek nahi duten aukera identifika dezakete. Agiri horiek guztiak hauteskunde mahaian egongo dira eskuragarri. Hauek dira agiri espezifikoak: gutun azal bat, egingo diren hauteskundeak eta eguna adieraziko dituen tintaz eta braillez idatzita, eta agirien erabilerari buruzko argibideak ere izango ditu braillez; bozkatzeko gutun azal normalizatu bat eta hautagaitza bakoitzeko gutun azal bat braillez etiketatuta eta tintaz idatzita eta horrekin batera etiketari dagokion hautagaitzaren boto txartel normalizatua.